



STEE-EILASEK MURRIZKETA ASMO BERRIAK SALATZEN DITU

Eusko Jaurlaritzak langile publikoen aurkako eraso gehiago abian jarri nahi ditu

Atzo, azaroaren 23an, EAEko Funtzio Publikoko Mahai Orokorrean, langileen aurkako neurri berriak aurreratu zituen Eusko Jaurlaritzak: baja egoeran % 100 ez kobratzea, erretiro aurreratuaren diru-sariak desagerraraztea, txanda kontratuekin amaitzea... STEE-EILASEK neurri hauek gogor salatu nahi ditu.

Alde bakarreko erabaki hauek negoziazio kolektiboa ezertan utziko lukete, hartutako konpromisoak zeharo urratuz. Irakaskuntzaren arloan indarrean dauden lan hitzarmenekin gure desadostasuna askotan adierazi dugu, langileontzat kaltegarri eta murriztaile direlako; eta orain hitzarmen hauek betetzeko ere ez dago prest Administrazioa.

Krisiaren sorreran inolako erantzukizunik ez dugunoi ezarri nahi dizkigute murrizketok, lan baldintzak eta zerbitzu publikoak berriro kaltetuz. Urte luzeetako borrokaren ondorioz lortutako eskubideak urratzen ari dira, inposizioa erabiliz, mehatxuak eginez eta xantailan oinarrituz.

Gure ustez, egoerak badu beste irtenbidea baina ez diote heldu nahi boteretsuen aurka egin beharko luketelako. Krisia bera sortu dutenei begiratu behar zaie lehenik eta, ondoren, fiskalitatearen gaiari heldu, iruzur fiskalari aurre eginez eta progresibitate-irizpideak ezarriz. Hau guztia osatzeko inposatutako azpiegitura erraldoiei mugak jarri behar zaizkie, oinarritzko zerbitzu publikoak eta babes sozialak bermatuz populazio guztiarentzat. Hau egin beharrean bankariek, enpresariek eta boteretsuek esandakoari men egiten diote, beraien arinkeria guztion kontura kudeatuz eta elkartasun mezu faltsuak luzatuz.

Lan, soldata, osasun eta erretiro duinaren baldintzak mugarik gabe murrizten jarraitu nahi dute, hurrengo urratsa edozein izan daitekeelarik. Besteoi, langileoi eta jendarteari, mobilizazioaren eta presioaren bidea baino ez digute uzten. Horren harira, eta hau guztia salatzeko, STEE-EILASEK datorren larunbatean, azaroak 26, eguerdiko 12:00etan Donostiako EHUKo egoitzako gelategiaren aurrean elkarretaratzea burutuko du "*Murrizketarik ez irakaskuntzan, aurrekontu duinak*" lelopean.

2011ko azaroaren 24an

ARABA: Eulogio Serdan 5	01012 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	araba@stee-eilas.org
BIZKAIA: Nikolas Alkorta 3 (Zabalburu) 48003 Bilbo		☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	bizkaia@stee-eilas.org
GIPUZKOA: Baso-txiki 30-34 (atzealdea) 20015 Donostia		☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	gipuzkoa@stee-eilas.org
NAFARROA: Descalzos 72 (lonja) 31001 Iruñea		☎ 948 21 23 55	☎ 948 27 00 48	nafarroa@stee-eilas.org



STEE-EILAS RECHAZA LOS RECORTES ANUNCIADOS

Las nuevas medidas que el Gobierno Vasco quiere poner en marcha suponen un ataque a las y los trabajadores públicos.

Ayer, 23 de noviembre, en la Mesa General de la Función Pública de la CAV, el Gobierno Vasco adelantó las nuevas medidas contra las y los trabajadores: no cobrar el 100% en las bajas, desaparición de las primas en la jubilación anticipada, acabar con el contrato de relevo... STEE-EILAS denuncia estas medidas firmemente.

Estas decisiones unilaterales dejarían en nada la negociación colectiva, despreciando totalmente los compromisos adquiridos. Hemos expresado a menudo nuestra disconformidad con los acuerdos laborales en vigor en el sector de la enseñanza, por ser perjudiciales y restrictivos para las y los trabajadores; y ahora la administración ni siquiera está dispuesta a cumplirlos.

Quieren imponernos estos recortes a quienes no tenemos ninguna responsabilidad en la creación de la crisis. A través de la imposición, la amenaza y el chantaje, están quebrantando derechos que habíamos conseguido después de muchos años de lucha.

Creemos que la situación tiene otra salida, pero no quieren utilizarla porque tendrían que enfrentarse a los poderosos. Habría que dirigirse en primer lugar a los que han creado la crisis, después actuar en la fiscalidad, afrontando el fraude fiscal e imponiendo criterios de progresividad. Además, hay que poner límites a las grandes infraestructuras, impuestas, garantizando los servicios públicos y la protección social para toda la población. En vez de hacer esto, ceden a lo que dice la banca, la clase empresarial y los poderosos, gestionando su irresponsabilidad y "vendiéndonos" falsos mensajes de solidaridad.

Quieren seguir restringiendo sin límites las condiciones del trabajo, el sueldo, la salud y la jubilación digna; el próximo paso puede ser cualquiera. A los demás, a las y los trabajadores y a la sociedad en general, no nos dejan otro camino que la presión y la movilización. Para denunciar todo esto, STEE-EILAS hará una concentración el próximo sábado, 26 de noviembre a las 12:00 del mediodía delante del aulario del campus de la UPV en Donostia con el lema "*No a los recortes en la enseñanza, presupuestos dignos*".

24 de noviembre de 2011

ARABA: Eulogio Serdan 5	01012 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	araba@stee-eilas.org
BIZKAIA: Nikolas Alkorta 3 (Zabalburu)	48003 Bilbo	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	bizkaia@stee-eilas.org
GIPUZKOA: Baso-txiki 30-34 (atzealdea)	20015 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	gipuzkoa@stee-eilas.org
NAFARROA: Descalzos 72 (Ionja)	31001 Iruñea	☎ 948 21 23 55	☎ 948 27 00 48	nafarroa@stee-eilas.org
